

Amets Elorza Letamendia

F maila • **3 saria**

Kaixo, ni Amets Elorza Letamendia naiz eta 8 urte ditut. Beasaingo Alkartasuna lizeon ikasten dut. Nere zaletasunak matematika, futbola, liburu eta komikiak irakurtzea, Rubiken kuboa egitea eta naturaz gozatzea dira. Batez ere, abentura eta superheroien liburuak irakurtzea gustatzen zaizkit. Nere asmoa, irakurtzen eta idazten jarraitzekoa da eta eskerrak eman nahi dizkizuet emandako aukeragatik, Mila esker!!



MIKEL AFRIKAN

Orain dela 700 urte Afrikan altxor bat ezkutatu zutela kontatu zion Mikeli bere lagun Aimarrek. Mikelek, orduan, altxor hori berak aurkitu behar zuela esan zion Aimarri, eta mapa baldin bazuen ea emango zion. Hala, Aimarrek mapa eman egin zion. Afrikako leku bat agertzen zen, baina mapa oso zaharra zen eta ez zen garbi agertzen non zegoen altxorra. Gainera, Mikel Bizkaian bizi zen, eta Afrika oso urruti zegoen.

Mikel itsasontzi bat hasi zen eraikitzen egur eta iltze ugari hartuta, eta bela egiteko izarak erabili zituen. Bukatu zuenean, bidaiari hasteko prest zegoen. Bere ametsa altxorra aurkitzea zen. Pentsatu zuen denbora luze egongo zela itsasontzian eta motxila prestatzen hasi zen: zakua, ur botila handiak, janaria eta linterna. Bilboko portuan zeukan itsasontzia eta handik abiatu zen Afrika aldera.

Bost ordu pasatu ziren eta itsasontzia hondoratzen hasi zen. Itsasontziko flotagailu batean irla batera iritsi zen. Han koko bat ikusi zuen kokondo batean eta eskalatzen hasi zen. Behatza indarrez sartu eta zulo bat egin zion, zukua atera eta edan egin zuen. Oso goxoa zegoen zukua.

Itsasontziko egur zati bat uretan zegoen eta hara egin zuen salto. Gainera erori zen eta egur zati hori Afrika aldera abiatu zen. Baina, halako batean, egurra Mikelen pisua ezin eutsi gelditu zen eta hondoratzen hasi zen. Orduan, igerian hasi zen eta harkaitz baten gainera igotzea lortu zuen. Handik zerbait ikusi zuen, uste zuen Afrika zela. Uretara salto egin zuen eta igerian haraino joan zen. AFRIKA DA, IRITSI NAIZ!., esan zuen. Oso pozik zegoen eta gogoratu zen altxorra aurkitu behar zuela. Mapa motxilatik atera zuen eta ondo begiratzen hasi zen. Nolako ezustekoa, maparen arabera altxorra handik gertu zegoen. Zuhaitz polit bat ikusi zuen eta pentsatu zuen horren ondoan egon behar zuela altxorrak.

Zuloa egiten hasi zen eta hots bat entzun zuen. Eskuekin lurra kendu zuen eta kaxa handi bat agertu zen bere begien aurrean. Ireki eta... urrezko txanpon pila bat zegoen barruan.

PROSA

Pozez kantari hasi zen eta kaxa itxi eta eraman egin zuen. Baina, pentsatu zuen: nola joango naiz orain etxera? Lagunduko zion gizakiren baten bila hasi zen, ordura arte ez baitzuen inor ikusi. Gizon bat topatu zuen halako batean. Mikelak “kaixo” esan zion, baina gizonak ez zion ulertu. Afrikarrak zerbait erantzun zion bere hizkuntzan, baina Mikelek ere ez zion ulertu. Mikel pentsatzen hasi zen eta esan zuen: badakit, telefonoan itzultzailea erabiliko dut. Afrikarrak esandakoa idatzi zuen eta horrela ulertu egin ziren. Mabi izena zuen bere lagun berriak.

Itsasontzi bat egin zuten bien artean. Itsasontzia uretan jarri, kaxa itsasontzian sartu eta etxera abiatu zen Mikel, Mabiri agur esanda. Gaua egin zen eta aingura uretara bota zuen. Motxilatik zakua atera eta lotan jarri zen. Goiza iritsi zen eta aingura uretatik atera eta berriro aurrera jarraitu zuen. Bat-batean trumoi hotsa entzun zen eta atzetik tximistak itsasontzia jo zuen, eta hondoratu egin zen. Mikel igerian hasi eta harri batera iritsi zen. Zorabiatuta zegoen eta harriaren gainean deskantsatu zuen.

Mabik ez zuen itsasontzia ikusten eta gainera, Mikelen oihuak entzun zituen. Orduan, kezkatu egin zen, eta beste itsasontzi bat eraiki zuen. Mikelen bila joan zen. Ikusi zuenean, harri ondora joan zen eta Mikel itsasontzira igo zen.

Elkarrekin Bilbora iritsi ziren. Mikelek bere herrira eraman zuen Mabi. Mabiri asko gustatu zitzaion Euskal Herria, eta lana bilatu zuen Bizkaiko aireportuan. Hori ospatzeko, Mikelen familiaren etxera joan ziren eta makarroiak eta txuleta ederra afaldu zuten. Mabi Mikelekin geratu zen Euskal Herrian bizitzen eta altxorreko diruarekin etxe bat erosi zuten eta elkarrekin bizi izan ziren betirako.